

Aretxabaleta,  
1993ko apirilak 7

# Aretxa gazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABAleta




## Zordun gara

• Aste Santuko ospakizunak

• Pertsonaia:  
Jose Olabe

• Kirolak:  
Parapentea



" Langileak  
garaiz  
aurretik  
jubilatzen  
dituzte eta  
lanpostuak  
hutsik  
geratzen  
dira"

## Krisia Atxabaltan ?

Kuadrila handia da gu-  
rea eta denetik dago: As-  
palditik langabezia daude  
batzuk, INEM -etik bueltaka  
ibiltzeaz zeharo nazkatuta.  
Gainera azkenengo paroko  
subsidoak razionatzen ha-  
siak dira. Lan bila zenbat  
saiatu diren beraiek bakarrik  
dakite. Beste batzuk ahal  
dutenean behin behineko  
lanak lortzen dituzte, nahiz  
eta askotan lan baldintzak  
ahopeka ere ez esateko mo-  
dukoak izan.

Fijo kolokatuak zeude-  
nak ere ez dute lo lasai egi-  
ten: lana galdu berri du ba-  
tek. Bestea enpresaren  
egoera txarra dela eta  
enplegu erregulazioan dago  
eta bere "paroa" xahutzen  
dabil. Besteren bat bere  
enpresa zanpatu duen mul-  
tinazional atzerritarrek noiz  
kaleratuko duen beldurrez  
doa goizero lanera. Koope-  
ratiban ondo kolokatua ze-  
goena ere, pisua ordaindu

ezinik larri dabil, geroz eta opor  
gehiago eta diru gutxiago jasoz  
(goikoei indizea nabarmenki igo  
dieten bitartean berari jeitsi egin  
diote).

Bai, Atxabaltan ere krisian  
gaude. Urte luzeetan gure bailara  
"oasis ekonomikoa" izan den  
arren. Aurreko krisiei ondo eutsi  
genien; baina oraingo hau etxe  
barruraino sartu zaigu. Oasis-a  
agortu eta gu ere "basamortu"  
bihurtuko ote gara?.

Azken urteetan hainbat eta  
hainbat enpresa hersten ikusi  
ditugu. Zutik dirautenetatik ge-  
hienak enplegu erregulazio es-  
pedienteekin daude. Langileak  
garaiz aurretik jubilatzen dituzte  
eta lanpostuak hutsik geratzen  
dira. Beste enpresak hersteke  
zorian daude. Ez da enplegu  
berririk sórtzen gure bailaran, ez  
eta Euskadin ere.

Berrehun eta berrogeita  
hamar langabetutik gora daude  
Atxabaltan. Gaitza batez ere  
gazte eta emakumeen artean  
hedatu da: Atxabaltan lan bila

dabiltzanetatik lautik hiru  
gazteak dira eta hirutik bi  
emakumeak.

Aspaldi etorritako etorki-  
nak beraien jatorrizko herrie-  
tara itzultzen dabilta. Eta  
beldur naiz, agian, besteok ere  
laster alde egiteko beharra izan  
dezakegula. Nora? Alemana  
dakienak Alemaniara edo bes-  
tela Valentziara, gure Koope-  
ratibek laster eraikiko dueten  
Max Center berrian ate-  
zain lanak betetzeko lehen-  
tasuna izango bait dugu.


Beste aukera batzu ere  
baditugu: bertan gelditu eta  
daukaguna gure artean bana-  
tu: soldata ez ezik, lana bera  
ere. Eta oraindik, atxabaltarrok  
munduko beste hiru laurdena  
baino askoz hobeto biziko gi-  
nateke.

**Anjel Mari  
Errasti,  
EHUko irakaslea**

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian  
Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretzi  
Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes,  
Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala. **Inprimategia:**  
Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Zer egingo duzu Aste Santuko oporretan?



**Mikel Iturbe  
(Langabetua)**

Aurten Atxabaltan geratuko naiz. Beste urte batzuetan kanpora joan izan naiz, baina aurten denondako heldu da krisisa.



**Mari Carmen Zabala  
(Umezaintzailea)**

Hemen geratuko naiz, mutilak lan egin behar du eta.



**Mari Loli Iturbe  
(Langilea)**

Goizean lana eta arratsaldean jai. Hemen geratuko naiz, ez noa inora, ez daukat ohitura-rik kanpora joateko.



**Alberto Zubizarreta  
(Langilea)**

Ez daukat opor haundirik, hiru egun bakarrik. Ez daukat pentsatuta ezer espezialik egiteko, hemen geratu eta egunak pasatu.

## KARTAK

### Kepa Urraren berriak

Kaixo lagunok:

Lau hitz bidaltzen diuzet hemen bizi duguna kontatzeko. Lehenengo esan, orain denbora gutxi dela jarri zidatela 1go fasean. Egunean bi ordu ditut patioan ibiltzeko, bata goizean eta bestea arratsaldean, beste denbora "txabolo"an pasatzen dut. "Txabolo"ko 8 metro karratuak lagun batekin banatzen dut, Javi Bekeakoa. Ez daukagu lekurik biok batera trikitiak dantza egiteko; baina ondo konponzen gara. Orain moduloan 26 lagun gaude. Denok batera urteten dugu eta pelota partidu batzuk botatzeaz gain tertuliak animatuak izaten dira. Mako desberdinetako jendea gaudenez gure esperientzia desberdinak kontatzeko aprobetxatzen dugu; baina aldi be-

rean, borroka berdin bategatik elkartuta eta etsaiak dispersioarekin inposatzen digun errepresioa sufrirituz, karteletako egoera latzak, karteletan trasladoetan sufritutako palizak eta abar.

Guzti hau gure uste sendo ideologiko-politikoe-tan tinko mantenduz. Azkenengo aldian, kanpaina errepresibo eta kutsatu bat sufritzen ari gara komunikabide guztietan. Gobernu espainolaren gaitik eta euskaldunaren gaitik zuzendua.

Espainiar karteletako preso politikioko artean ez dagoela zatiaketa ideologiko-politikorik esaten diuzet. Argi daukagu ideia politikoa, hau da, gure Euskal Herrian independentzia eta sozialismoa lortzea. Estatu espainolaren eta E.T.Aren arteko negoziazio politikoen bitar-

tez, gure helbururako alternatiba K.A.S hartuta eta borrokako bide guztiez baliatuz.

Preso politikoak Euskal Herriak eta Estatu edo Gobernu espainolarekin daukan borrokaren ondorioa gara. Argi daukagu dagoen borrokaren irtenbidearen ondorioz urteko garelara. P.N.V eta Gobernu espainola salatu nahi ditut gureganako intoxikazioagatik, urteera pertsonalak bultzatuz eta zapalduz. Kanpoan zaudentoi zuzentzen naiz, egunero borrokan jarrai dezazuen M.V.L.Nko frentee-tan antolatuz. Borrokak bakarrik eramango gaitu justizian pake eta askatasunera. Represioa izan arren ere moralak altua da. Ez jeitsi guardia. Aurrera bolie!! G.E.A ; G.E.S

*Kepa Urra*

### Pausoka

Kalean entzuten diren zurrumurruak argitzeko Pausoka Haur Eskolak ondoko hau adierazi nahi du:

Pausoka Haur Eskolak 0 - 3 urte bitarteko haurrak hezitzen ditu. Adin honetatik aurrera Atxabaltako herrian bi aukera gaude: Udal Eskola urrea eta Santa Rita lkastetxea.

Pausokak ez dauka inongo loturarik ez baterekin ez bestearekin, eta hemengo haurren gurasoek askatasun osoz aukeratzen dute bere haurrak nora eraman Haur Hezkuntzaren bigarren zikloa betetzeko.

*Pausoka Haur Eskola*



## Atxabaltan ere korrika


Eguenean, eguerdiko 11,30etan Atxabaltara heldu zen Korrika. Mugarri inguruan hasi zen lehenengo kilometroa eta Landeta inguruan bukatu zen. Jende ugari elkartu zen, eskoletako umeak batez ere. Bide ertzetan ere jende asko ikusten zen, korrika egitera animatu ez arren.

Eguraldiak ez zuen asko lagundu, baina hala eta guztiz jendea ez zen etxean geratu eta festa handia izan genuen, Korrika herriari izan genuen 15-20 minututan. Kale

erdian sirena eta txalo hotsa ere entzuteko aukera izan zuten korrikalariak.

Joan zen zenbakian, Korrikari dirulaguntza eman zioten taldeen berri eman genuen, baina haiek ez ziren bakarrak izan. Antolatzaileek esan diguteenez, joan zen asteko taldeei, beste batzuk gehitu zaizkie: Galfarsoro lantegiak Murube lantegiarekin batera km bat erosi zuen eta Aretxabaletako Lenitz Lanbide Ikastegiak beste bat.

Korrikaren antolatzaileak, eskerrak eman gura dizkie diruz lagundu dutenei eta egun horretan parte hartu zuten denei.



## Almenen ekintza bereziak

Martxoaren 20an eta bi egunetarako Almeneko O.H.Oko 5. mailatik gorako ikasle batzuk, Frantzian dagoen Luz Ardiden estazioara eskiatzera joan ziren. Bertara joan ziren 155 ikasle eta 15 irakasle erroteko 3 autobus behar izan ziren. Nahiz eta eguraldia oso ona ez izan, oso ondo pasatu zutela eta hurrengo urtean ere joango direla ziurtatu digute.

Orain barriz, 2. urtez, Bazko asteko martizenetik zapatara, 85 neska-mutiko eta 20 monitore Goñiruntz joango dira. Neska-mutiko horiek O.H.Oko 5., 6., 7. eta 8. mailetakoko

dira eta dagoeneko desiatzen daude Nafarroako "Sierra de Andia"n dagoen Goñi herri txikira joateko. Goñin dagoen baserri handi batean 4 gau pasatuko dituzte, eta egunez eguraldiak laguntzen badu, mendi urteerak egingo dira inguruko mendi inportanteak bisitatuz (San Donato, Satrustegi, Lizarraga, Trekua, Trinidad Iturgoien eta abar).

Naturarekin eta ikaslearen harremanak sendotzea eta noski, ondo pasatzea, dira Goñira joatearen arrazoiak.

Eguraldiak laguntzea eta ondo pasatzea opa diegu.



**Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria**

**SAGASTA  
ELEKTRIZATEA**

Elektrogailuak  
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14  
☎ 79 16 10



NOVEDADES

**FELI**

MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparagirre, 4  
Tfnoa: 79 21 24  
**ARETXABALETIA**



## Hezibideren batzar nagusia

HEZIBIDEK martxoaren 30ean bere ohizko batzar nagusia egin zuen. Bertan, elkarte horrek urtean zehar egindako ekintzen berri eman zuen. Horretaz gain, Elkarteak egindako lanaren memoria kalera tu du.

Memoria horretan, 1992. urteko balorazioan, Elkartearen barruan eta kanpoan izan diren aldaketak aitatzen dira. Kanpokoen artean, LOGSE eta Eskola Ituneko Akordio Politikoa. Horrela, HEZIBIDEren ordekarriaren esanetan: "lege berriaren ezarpenak ez gaitu prestatu barik harrapatu, urte asko dira gure sistema erreformatzen ari garela, gure proiektua egokituz. Akordio politikoa gure erudirik urrutituz bada ere, bidea zabaltzen du ikastolak nahiz HETEen elkar-turiko ikastetxeak publiko bihurtzeko".

Bestalde, HEZIBIDEK bere asmoak azaldu zituen, 1991-94eko plan estrategikoaren barruan, zuzendari-taldearen profesio-

sionalizazioa, aintzatasunaren trataera, 0-3 urte birtarteko hezkuntza eskaintzaren egitura finkatzea, euskararen normalizazioa eta hizkuntza desberdinak ikasteko plangintzak bul-tzatuko dituzte.

Hezibideko ikastetxeen bilakaera azkenengo bi urteetan, honako hau da: Eskolaurrea / O.H.Oan 1991-92an 3.027 ikasle zeuden eta 1992/93an 2.954. Irakaskuntza Ertainean: 1991/92an 1.624 ikasle eta 1992/93an 2.418. Unibertsitate Irakaskuntzan: 1991/92an 1.409 ikasle eta 1991/93an 1.562.

Datu horien arabera Eskolaurrean eta O.H.Oan ikasle kopurua zerbait jaitsi da, % 2,4a. Irakaskuntza Ertainetan, barriz, % 5,4a eta Unibertsitate Hezkuntzan, % 11 igo da.

Azkenik, 1992ko aurrekontua 3.428 mila pezetakoa izan da. Finantziaketan Administrazio Publikoak duen partaidetza % 52koa da, Onuradunena % 25,6koa eta bestelakoena % 22,4koa.

## Abesbatzaren batzar nagusia

Abesbatzaren Batzar Nagusia martxoaren 13an izan zen.

Bertan, direktibaren aldaketa egin zen. Orain lehendakaria Alberto Uribe txabarria da eta hauek dira direktibako partaideak: Jose Kruz Urzelai, Mikel Elorza, Joseba Lasagabaster, Jaione Olabe eta Mari Iglesias.

Batzar horretan hainbat gairen artean honako hau tratatu zen. Abesbatzan jende nagusia dago batez ere, eta jendea nahiko nekatuta dago. Hori dela eta, jende gaztea koruan sartzerantz animatu gura dute. Edade ez da arazoa herriko abesbatzako partaide izateko, eskatzen den gauza bakarra kantetako gogoia eukitzea da.


Abesbatzak astero izaten ditu bere entsaiak eta hauek martizenetan eta eguenetan izaten dira arratsaldeko 8.30etan.

Abesbatzakoek, lerro hauen bitartez, jendea animatzeko eskatzen du eta lotsa barik joateko entsaietara edo eta direktibakoren bati izena emateko. Ez da beldurrik izan behar, kantetako gogoia euki ezker. Beraz, bada-kizue kantatu gura duzen denok koruan parte hartzerantz gonbidatuta zaude. Animatu.

• Apirilaren 3, 4, 5 eta 6an Yugoslabiaz enaren egoerari buruzko erakusketa izan da Euskal Txokoko aretoan. Erakusketa horretan argazkiak eta diapositibak izan dira ikusgai.

• Otalazelai eguneko programa dagoeneko gertaketa hasiak dira. Maiatzaren 9an krossa izango da eta 16an Otalazelaiko jaiak. Aurtengo programa nahiko antzekoa izan arren aldaketaren bat izango da. Programa osoa hurrengo zenbakian jakingo duzue.

• Aste Santuko oporrak direla eta, Aretxagazetaren hurrengo zenbakia apirilak 29an kaleratuko da.



## 21 zonaldeko bideko obrak

21. zonaldeko ekialdeko bideko obrak hasi dira, Industrialdea eta Copreciko aparkalekuren artekoa.

Bide hori trenbide zaharraren gainean dago kokatuta eta bere ekimendebalde zatian Copreciko aparkalekuarekin egiten du muga eta iparhego norabidean oinezkoen bidearekin.

Proiektuak bide osoa, espaloia eta oinezkoen

paseoa egitea hartzen ditu. Gainera, euri urak eta ur zikinak jasotzeko saneamendu sareak eta dagokion ur-edangarriaren sarea osatzea hartzen ditu.

Proiektua bukatuta gero, industrialde inguruko bideak konponduko dira, asfaltatuz.

Udalak inguru guzti horren urbanizazioa bere gain hartuko du.

## Udaleko lan Boltsa

Atxabaltako Udalak lerro hauen bitartez, herriko langabetuez osotutako lan boltsa dagoela jakinarazi gura du.

Kolektibo horretan, ezaugarri eta kualifikazio desberdineko jendea dagoenez, edozein lanpostutara egokitu daitekeen norbait aurkitzeko lekurik aiposena izan daiteke.

Beraz, umeak zaintzeko, etxea garbiketako, enpresaren batean lan egiteko, klaseak emateko,... edo eta beste edozein lanetarako norbaiten zerbitzuak kontratatu beharrez gero, lan boltsa horretara jo dezakezuela adierazi gura da, horretarako Marta Madinabeitiarekin egon zaitezte, 79 10 00 telefonoan.



## Udal plenoa

Martxoak 31n, udal etxean izandako ohizko plenoan, aurreko plenoko akta onartu ondoren, puntu hauek aztertu ziren:

- Euskeraren ordenantzen arabera, hemendik aurrera plenuetako aktak lehenengo euskaraz idaztea eta gero, erderatzea.

- 30 zonaldeko partzelazio berria. Horren helburua hasieran, lur zati horrekin jabeen, etekin eta kargu arteko banaketa egokia egitea da. Gainera, eraikitzeko lur eremuak finkatzen dira.

Proiektuak, hasieran egin zen plangintza zuzendu gura du, etekin eta kargen artean, eta, aldi berean, plan partzialaren betepena samurtu eta ziurtatu.

Partzelatuko den atalak 62.295,5 metro karratuko azalera du eta hauek dira bere mugak: Ekialdetik, Deba ibaia, hegoalde, 31. zonaldea eta ipar eta mende-

baldetik finkatu ezin daitekeen lurra.

Orain, proiektua jende aurrean erakutsiko da, gura duenak bere proposamenak egiteko.

Bestalde, urjentsiaz ELA, CCOO eta LAB sindikatuek aurkeztutako Euskal Herriko egoera ekonomikoari buruzko mozioa onartu zen.

Mozio horretan, Euskal Herriko egoera ekonomikoa salatzen da. "Gaurko egoera ekonomikoa benetan larria da, gure herrialdearen geroa oraindik okerragoa izan daiteke. Suntsiketa hau gelditu eta errekupe-raketa prozesu egonkor bat lortzen ez badugu".

Atxabaltako Udalari gure ekonomia defendatu, bere hobekuntza eta berriztea bultzatzea eskatzen diote. Gainera herritar bakoitzak lanpostu baten bitartez bere geroari garrantzia emateko eskubidea errealitate bihurtu gura dute.




## Everest 92

Joan den eguako-  
txean, apirilaren 2an,  
arratsaldeko 6etan Iñu-  
rategi anaiak udaletxe-  
ko pleno aretoan izan zi-  
ren. Bertan, Udalak  
Everest 92 espedizioari  
eman zion laguntzaga-  
tik, eskerrak eman ziz-

kioten.

Ekintza honetan  
Udal Batzordeko or-  
dezkariek izan ziren eta  
baita alkatea bera ere.  
Iñurrategi anaiak  
oroigarri batzuk eman  
zizkieten, euren esker  
ona adierazi guran.



## Irakur maratoia

Martxoaren 30an  
Kurtzebarri Eskolan  
irakur maratoia izan zen.  
Bertan ikasleek ezetik  
herriko talde desberdi-  
netako ordezkariak eta  
gurasoek ere parte hartu  
zuten.

Antolatzailleak oso

pozik daude ekintzak  
izan duen harreragatik.  
Jende asko gerturatu zen  
Kutzebarri eskolako  
aretoa irakurtzera.

Datorren urtean ere  
antolatzeko asmoa dute,  
herrian irakurzaletasuna  
indartu dadin.

## Aste Santuko ospakizunak

Aste Santua dela eta,  
parrokiak ospakizun be-  
reziak antolatu ditu:

**Apirilak 8an, Eguen  
Santua:**

Arratsaldeko  
5.30etan Jaunaren afa-  
riko meza parrokian, er-  
daraz.

6.30etan euskaraz  
konbentuan.

Arratsaldeko  
7.30etan: Meza Nagusia  
parrokian, euskaraz.

Gabeko 9.30etan:  
Hitzaren liturjia, mojetan,  
bi hizkuntzetan.

**Apirila 9, Egu-  
kots Santua:**

Goizeko 9etan: Go-  
respenak mojetan, eus-  
karaz.

Goizeko  
10etan: Gurutz bidea pa-  
rrokian, euskaraz.

Goizeko 11etan: Pe-  
nitentzia ospakizuna pa-  
rrokian.

Arratsaldeko 4retan:  
Jaunaren Nekaldiko osp-  
pakizuna mojetan, bi  
hizkuntzetan.

5etan: Jaunaren Ne-  
kaldiko ospakizunak, pa-  
rrokian euskaraz.

Arratsaldeko  
7.30etan Gurutz bidea  
parrokian, erdaraz.

**Apirilak 10: Zapatu  
Santua**

Goizeko 9etan: Go-  
respenak mojetan, eus-  
karaz.

Arratsaldeko 5etan:

Aitortzak parrokian.

Gabeko 9etan: Bazko  
Gaubeila parrokian eus-  
karaz.

11etan: bi hizkunt-  
zetan mojetan, Bazko  
Gaubeila Nagusia.

**Apirilak 11: Bazko  
Domeka**

Goizeko 9etan: meza  
mojetan, euskaraz.

11etan: parrokian  
erderaz.

Eguerdiko 12etan:  
Meza Nagusia parrokian,  
euskaraz.

Bestalde, auzoetan  
ere izango dira ospaki-  
zun bereziak. Honako  
ordu hauetan:

**Azatzen:**

Eguenean 6etan,  
meza.

Eguakotxean  
12etan: Aitortzak eta  
6etan meza.

Zapatuan 8etan,  
meza.

Domekan ordu ba-  
tetan: Meza Nagusia

**Mendiolan:**

Eguakotxean 6etan:  
meza eta 8etan Ordu  
Santua.

**Gellaon:**


Eguenean 4retan,  
meza.

Eguakotxean 4retan,  
meza.

Domekan 11etan,  
meza.

Horrekin amaitutzat  
emango dira Aste San-  
tuko ospakizunak.

Hirugarren mundua miseria gorrian bizi da eta gu, herri aberatsekook, zorrean gaude eurekin. Guk eurengandik gauza asko jasotzen dugu, lapurtzen gabil-tza. Hirugarren Munduko taldeak orain dela urte eta erdi Unai Proiektuari ekin zion. Jose Mari Sarasuarekin izan gara proiektu hori hobeto ezagutzeko asmoz.



Aita Galdos atxabaltarra Gujeraten bertakoekin

## Unai proiektua, laguntza martxan

### • Zela sortu zen Unai herrialdeari laguntzeko proiektua?

• Unai herrialdeari laguntzea Inaxio Galdos atxabaltarra bertan da-goelako sortu zen.

Lurralde haietan lurrak emankorrek zirela eta lur azpian zegoen ura atara ezkerre nahiko elikadura atarako zela esan zigun. Hori ikusita guk laguntzea pentsatu genuen eta lan horretan hasi ginen.

### • Zertarako da proiektua?

• Lurrak bardindu egin behar dira eta bestetik ura alferrik galdu ez dadin hormak ipini dira lur sail bakoitza inguratuz. Horretaz gain 11 putzu egiteko asmoa dago. Han ura badago, baina lurpean dago eta kanpora atara behar da. Gainera, euria egiten duenenan, ur hori jasoten ez bada ez dute urik geroko.

Gure helburua herri

behartsu horreitan nahiko elikadura sortzea da. Eta baita irakaskuntza arloan laguntzea ere.

### • Irakaskuntzan zela laguntzen duzue?

• Han umeak txikitatik etxean laguntzen hasten dira eta gero eskolan hasteko eragozpenak dauzkate. Orduan, gure asmoa da, 3 urterekin preeskolarrean sartzea, horrela gero jarraitzeko aukera izan dezaten.

### • Proiektua, dirutan zenbat da?

• Proiektuan 323 Hk bardintzea, 11 putzu egitea eta 16 irakasle eta eskolako materiala sartzen dira. Hori denori lortzeko lan haundia dakar, baina prezio aldetik gutxi. Hemen proiektuak 600 bat milioi balioko luke eta han berriz, 16 milioi. Gure pezetan 40 bider gehiago da han.

Kontuan hartu behar da zordunak garela eta gainera gure diruak han

izugarritzko balioa duela. Adibidez, hango irakasleek hilean 1.250 pezeta kobratzen dute eta materialak 1.500ekin egiten da. Beraz gure 15.000 pezetaz 40 umek urte osoko irakaskuntza daukate.

### • Zein da zuen plana?

• Gure plana 16 milioi horreik 4 urtetan jasotzea zen. Urte eta erdi pasatu dira eta 6 milioi daukagu, ia proiektuak balio duen erdira heldu gara.

Esan behar da Atxabaltako herriak oso ondo erantzun duela eta asko direla laguntzen dabiltzanak eta konpromezua hartu dutenak. Lortu dugun gehiengoa herriarengandik jaso dugu. Garbi esan ere, proiektuaren faseak beteten dabiltzala. Orain arte 11 bat eskola, putzu bat eta lurrak bardintzearena eta inguraztearena egin dira.

**"Zordunak gara eta gure diruak han izugarritzko balioa du."**



• **Zergatik ez zarete bosniakoei laguntzeko proiektuetan sartu?**

• Gu ez gara Europako herrietan sartuko, Europak daukan laguntza horiena baino 20 bider haundiago da. Yugoslavia ohian masakre haundiak dabil-tza gertatzen, baina Afrikan leku gehiagotan eta urte askotan gelditu barik dabil-tza, baina hori ez da entzuten. Uste dugu Yugoslavia ohikoei ez die-gula ezer zor eta horiei, barriz, bai. Beraz, gu Afrika, Hego Amerika eta Indian mugituko gara.



**Khelban herrian eraikitako ur putzua**

## Aretxabaleta-Unai Proiektua numerotan

Taldekoen ustez, Hirugarren Mundutik aprobetxatzen dugunarekin konparatuta gutxi da, baina hala ere pozik daude bidalitako laguntzarekin (bi urtetan pilatutako datuak):

112 laguntzaile (pertsonak edo familiak) .....	4. 226.000 pezeta
Aretxabaletako Udala .....	1.500.000 pezeta
Arrasateko Udala.....	1.250.000 pezeta
Guztira .....	6.976.000 pezeta.

## **Kontzientzia sortu, lehenengo**

Herri gutxitan dago herrialde pobreenako elkertasunaz arduratzen den talde bat. Horietako bat Aretxabaleta da. Hirugarren Munduko Taldea orain dela bi urte sortu zen. Dozena erdiren bat pertsona bildu ziren hasieran. Une honetan Udalak utzitako lokal bat dute, bertan gai honen artxibo bat jarri dute eta hilerio elkarten dira hamar bat pertsona. Bi helburu dituzte:


\* Aretxabaletako herria kontzientziaztea Hirugarren Munduaren zapalketaz eta horretan guk daukagun arduraz. Horretarako hiru bide jorratzen dituzte:

- Hitzaldiak antolatu han egondakoekin eta adituekin.
- Herriko eskoletan gai horretarako materiala sartu. Hau oraindik oso gutxi landu dute.
- Kanpaina, kartel, aldizkari eta abarren bidez.

\* Beste helburua, laguntza martxan jartzea da. Hemen bi bide lantzen dituzte:

- Unai-Proiektua sortu eta jendearen dirulaguntzarekin aurrera atara.
- Udala bultzatu bere aurrekontutik %0,7 herrialde pobretuen garapen laguntzarako erabili dezan, ONUk gomendatzen duen moduan.

**Jose Olabe, igazko oporretan, Gujeraten izan zen, Unai herrialdean. Han, Hirugarren Munduko taldeak bultzatutako Unai proiektuaren aurrerapenak ikusi ditu eta hango berriak jakiteko aukera eman digu.**



## Jose Olabe Indian izan da Unai proiektua ezagutzen

### • Noiz izan zinen Indian?

Igaz. Han Unaiko herrietan izan naiz eta nahiz eta herri horreitan eskasian bizi, hiriburuetan baino askoz hobeto bizi dira. Lehenengo aldiz 1982an izan nintzen eta 10 urte hauetan aurrerapen handia izan dela ikusi dut.

Hiriburuetan, barriz, jende gehiago dago eskatzen, txabolismo gehiago dago...

### • Zelakoa da hango jendea?

Hango jendea oso ona da eta beti daude laguntzeko prest. Kristautasunean ere guri mila buelta ematen digute, barruraino sartuta dute. Eurendako Jainkoa Jainkoa da eta gauzak txarto urten arren ere ez dira haserretzen, gauzak horrela dira eta onartu egiten dute.

Askok eskertzen dute hemendik bidaltzen den dirua eta eurek ezer edu-

ki ez arren, prest daude zuri emateko.

### • Zein erlijiotakoak dira?

Gehienak hindutarrak dira. Eskoletara erlijio guztietako pertsonak joaten dira, hindutarrak, musulmanak, kristauak eta denak. Gainera denek tratamendu bera daukate ez da inor desberdintzen. Unai inguruan kristau bihurtzen dabilta poliki-poliki; hala ere, gehiengo musulmana da.

### • Ze aurrerapen ikusten duzu proiektua hasi denetik?

Hemengo laguntasunak asko balio du han proiektu hasi denetik. Bai lurralde mailan, bai eskola mailan eta baita hazien mailan ere aurrerapena ikusten da. Lortu dute lur haietan haziak haztea eta fruituak batzen hasi dira.

Hemendik bialdutako diruaren kontrola oso handia da, ondo

kontrolatzen dute diru guztia. Dena dokumentuetan idatzita daukate eta azkenengo pezetara arte non erabili eta zertan gastatu duten ondo dakite.

### • Lurrak nolakoak dira?

Lurrak eurenak dira, ez dira gobernua-renak. Lurraldeak naharrez eta harriez hondatuta zeuden eta orain dena konpondu dute. Lan handia egin dute eta ederra da zela aldatu duten dena ikustea. Orain fruituak batzen dabilta eta fruitu horietatik elikatzen ikustea oso pozgarria da.

### • Eta putzuak zela daude?

Ni izan nintzenean putzu bat zuten eginda, 16 metrokoa eta 3 metroko diametroa, eta gainera ura zeukaten. Orain bigarren putzua aurreratuta joango da.

Han putzuei inportantzia handia ematen

diete, euririk ez duelako egiten eta abuztuan eurria egiten duenean, ez badute ura nonbaiten jasotzen, joan egiten zaie eta gero jai daukate.

Gu izan ginenean, ordurako arroza zuten eta orduan ere eurria egin zuten.

### • Eta eskolak?

Eskolak ere eginda daude eta 4-6 urteko jendea dabil ikasten. Oso pozik ikusten genituen, han ikasi jan eta lo, dena bertan egiten dute. Gero unibertsitatean ikasteko aukera dute.

### • Han jende asko dago lanean?

Bai hemendik joandako jende asko dago eta lan handia egiten dute. Euren eguneko lan soziala egiten dute eta gero katekesia ematen dute. Errepide txarrak egon arren, euren kotxea hartu eta mugitu egiten dira kristautasuna zabaltzeko.


### • Zerk harritu zaitu gehien?

Jende asko ibiltzen da kalean edozein orduetan eta eurek daukaten sinismena oso handia da.

### • Eta azkenik, emakumea zela dago ikusita?

Ba... txarto; baina Inaxiok lortu du emakume talde bat batzea eta asoziazio bat sortzea, eurek aurrera egin dezaten. Oraingoz talde hori aurrera doa. Han dauden mojek laguntza handia ematen diete.

Nork ez du ikusi Kurzebarri inguruan parapenteak txorien moduan hegan egiten?. Gu horreitako batekin izan gara oraingoan. Bera Jose Galiano da eta 19 urte ditu. Josek 3 urte daroa parapente munduan sartuta. Josek azaldu ezineko sentazioak sentitzen ditu hegan doanean eta jendea animatzen du, batez ere neskak, oso gutxi ibiltzen direlako. Bere ustez kirol hau ez da arriskutsua, erne ibili ezker.



**Aurreko** alean, nesken futbol taldea ligan azkena gelditu zela jarri genuen. Hori ez da horrela, azken hirugarrenak izan ziren eta. Barkatu gure akatsa.

**Martxoak 27an Dorletako** Ama eskolako txirindulariek, alebin eta infantiletan denboraldia hasi zuten. Saillkapen onenak lortu zutenak Mikel Sebastian eta Oier Garro izan ziren lehenengo hamarren artean sartu zirenak. Bestalde, kadetetako 1. eta 2. urtekoak, Beasain eta Seguran izandako frogetan lehenengo 20 artean sartu ziren. Azkenik, jubenilak Antzuolan izan zuten lasterketa.

## Txorien moduan hegan egiten

**• Zela hasi zinen parapentean ibiltzen?**

• Betidanik gustatu izan zaizkit hegan egiten zuten gauzak: aerodelismoa eta abar. Behin mundu horretan sartuta zegoen lagun batek probatzera animatu ninduen.

**• Eta orduan ikastaroa egin zenuen?**

• Ez, piskanaka-piskanaka neure lagunekin ikasi nuen. Baina uste dut ikastaroa egiteak merezi duela.

ikastaroak ondo daude, beharbada teoria gehiegi ematen dute.

**• Eta inguru hone-tan non ematen dira ikastaroak?**

• Oñatin eskola bat dago eta talde bat egiteko jendea dagoenean, ikastaroak hasten dira.

**• Zenbat balio dute**

**ikastaroek?**

• Ikastaroek 25.000 pezeta balio dute. Baina, nahiz eta teoria asko ikasi eta praktika egin, ikastaroa amaitutakoan, praktika gehiago egin behar da konfidantza hartzeko.

**• Zenbat balio dute?**

• Nireak 300 mila pezeta balio zuen. Hasieran bigarren eskuko bat erostea normala izaten da eta horreik merkeagoak dira.

**• Zer da, hobbya ala kirola?**

• Hobbya izan arren, kirola ere bada. Parapenteaz salto egiten den bakoitzean, mendira igo behar da eta esfortzu fisikoa egin. Gainera, parapenteak 8 kilo edo dauka eta horiek bizkarrean eroan behar ditugu.

**• Zela erabiltzen da parapentea?**

• Parapenteak zuloz betetako telazko kajoi batzuk ditu eta zulo horreitatik sartzen da haizea eta horrela parapentea haizez betetzen da. Gero, bi soka ditu eta bakoitza esku batekin hartzen da. Orduan, eskumakoa tiratzen baduzu eskumara joaten da eta alderantziz.

**• Arriskutsua da?**

• Ez, uste dut arriskutsua dela lelokeriak egiten dituzunean. Kontutan izanda haizeak zela jotzen duen eta erne ibiltzen bazara, ez dauka arriskurik.

**• Zer sentitzen duzu hegazean zoazenean?**

• Ezin da azaldu, baina badirudi munduan bakarrik nagoea eta paisaiaren zati bat naizela.

*T. Aragones  
A. Galdaera*



Agur zeruko gibeltanpa!  
 Agur hieko ustari ashma!  
 Agur hieko  
 ekaik oipa  
 indar nashen auzuphila!  
 Ara gismen askatanna!

## Loramendi

Martxoaren 23an, 60 urte bete ziren Bedoña'r Joakin Aita kaputxinoa, LORAMENDI, hil zitzaigula.

Juan Arana Ezpeletak, izen hori hartu zuen Bedoñako Mendibitsu baserritik atera, eta fraide izateko bidea zuzendu zuenean.

Atxabaltar ospetsu hau 1907ko urtarrilak 27an jaio eta esan bezela 1933ko martxoaren 23an hil zen, 26 urte juxtu zituela eta bere lehen meza eman baino 23 egun lehenago.

Handik bi urtetara, 1935ko uztailaren 2an, igandea, Euskaltzale Taldeak omenaldi zoragarri bat eskeini zion Bedoñan, harri orogarri bat eraiki eta agertu zutelarik. Gerra denboran eta denok dakigun gorrotoaren eraginez harri oroigarria Atxabaltako kartzelan egon zen luzaroan.

1959ko irailaren 20an, milaka pertsonak, beste omenaldi bat eskaini zioten eta bertan "Basarri" eta Lizaso bertso kantatzen azaldu zi-

ren. Horretaz gain literatur sari banaketa ere egin zen. Poesigintzan, G. Aresti gertatu zen irabazle, eta B. Gandiaga bigarren. Saiakeran Kolobika Jauregik irabazi zuen; eta Antzerkigintzan, Eusebio Erkiagak.

Bere gizatasuna goi mailakoa bazen ere, bere hurbilekoei utziko diegu gomuta goxo hori. Guk, lerro hauetatik, bere maila literarioa eta bere euskal zaletasuna aipatuko genituzke batipat. Bere aportazioak Euskal berpizkunde garaian,

Lauaxeta eta Lizardirekin batera, adituen lumarako utziko ditugu. (kasualidadea, hiru gizon haundik, hiru izen-orde eta hirurak L hizkiak idatzi-ta?)

Arestian aipatutako ezaugarri horien eredu txiki bat ondorengo olerki hau. Gure omenaldirik preziatuena, hori irakurri, dastatu eta ausnartu. Benetan zoragarria!

**A. Antxia Leturia**  
**I. Urreta**

## Otoi, adiskide

Il intzan, il i ere...! Eraman induten...  
 Ire itzalak ordea ni baitan dik lurmena...

Eta abia bai intzan  
 laño ta eurite...  
 beste alde hortan  
 bai al duk aterpe...?

Sukarretan aitu zan Uda, jaun gorria,  
 otzikaran utzirik seme negartia...  
 Aurrari pa eta pa!... sukaldean ama  
 min-ariaz ari da josten min-oiala...

-Esan, ama, esan:  
 non degu aitaxo...?  
 Aspaldi jun baitzean,  
 laister da itzuliko...?-

Sutu zaiou amari malkoz aurpegia  
 ta alderaka ustutzen du biotz-intziria...  
 Lotzen du besoetan-laztanka umetxoa  
 ta ixilean txukatuz bagi-jarioa,

-zer diozu, seme:  
 non degun aitaxo...?  
 Aitaxo, bai...! zure  
 aberrian dago...!-

Ta artean txikiari eskua altxaturik,  
 -antxe goian, diotsa, bitxiz buresturik...-  
 Geroztikorko aitaz galdetxen badio,  
 belaxen eskutxoaz aurrak darantzuio.  
 Ta aingeru batek itaz bai zidak gaur esan,  
 nigandik aldatzean noruntza jo uan...

Otoi, adiskide,  
 otoi nere alde...!

# Opor usainean



J.J. Aretxaga

Eguraldi eskastxoak tokatu zen Aretxabaletatik Korrika pasatu zen egunean. Jende asko, gehienak ikasleak. Egia esan ikasleendako txoiloa izan zen: goizajai. Jakin dut, kilometroen banaketan arazoak izan zirela zenbait talderi erdiko edo eskinako kilometroak ematean. Penagarria herriko eskola desberdinen arteko tirabirak horretan ere isladatzea. Hurrengo Korrikan **ALMEN**ek eta **Kurtzebarrik** kilometro bat erdibana erostea idea polita izan liteke. Kontuak kontu, atxabaltar batzuk majo egin zuten takarraran. **Felix Beltran**, **Joseba Larrinaga** eta **Jabier Mateo** Gatzagaraino ailegatu ziren. Beste herriko bat ere ikusi nuen hurrengo egunean Korrikan. Telebistan Bitorixako Kilometro bateko irudiak ikusten nembilela han! atxabaltar bat testigua eroaten: **Gaizka Larrinaga** Aretxagazetako komikilaria.

Euskal Herri mailako beste erakunde bat, baina herrian eragina duena Elkarri da. Bake eta akordioaren aldeko herriko taldea osatuta dago Aretxabaletan. Izenak hemen jarteko lartxo dira. Baina bada bat, aipatzea merezi duena. Izan ere **Juanjo Perez** mugimendu honetako Bizkairako

koordinatzaile lanetan hasi da ta. Juanjoren kinta bereko beste mutil bat, **Alberto Etxabe**, T.U. Lankide aldizkarian ikusi barri dut. Bera Maxi Eroskiko arduradunetako bat da, eta "El socio pregunta" atalean galderak egiten agertzen da azken alean.

Koruak beti euki du gure herrian inportantziatxoak. Aurrera jarraiketako jende barriaren bila dabilta orain. **Alberto Uribetxebarria** bati galdetu eta besteari galdetu dabil. Tabernetan eta sukaldeetan tenor eta baritono potentzial asko dago izkutatuta. Hori bai, mutilak gura dituzte, eta gazteak. Gura duenak, badaki nora jo.

Akabetako, etxeko barri. Aretxagazeta honetako Zuzendaritza Batzordean, badaukagu lehendakari-orde barria, **Mirian Txintxurreta**. Asteroko erredakzio-kontseilutik aparte, hilerok bilduko da hemendik aurrera Zuzendaritza Batzordea. Erabaki potoloak hartzen hasten badira, ez dakit zenbat aguantatuko dudan orrialde hau idazten.

Dena dela, hileroko azken bileran hartutako lehenengo erabakia gustokoa izan zen: Aretxagazetak oporrak hartuko ditu hilaren 29 arte. Erabaki guztiak hain pozgarriak izango ahal dira!

## 8

### EGUENA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera berezia.
- Arratsaldeko 4.30etan eta 7retan **La bella y la bestia** filmea Zaraia zineman.

## 10

### ZAPATUA

- Gaueko 10etan **El principe de las mujeres** filmea Zaraia zineman.

## 11

### DOMEKA

- Zikloturisten urtee-

ra: **Aretxabaleta-Deba-Aretxabaleta**. (84 Km).  
 • Arratsaldeko 4.30etan **Lunas de hiel** eta 7retan **El principe de las mujeres** filmeak Zaraia zineman.

## 17

### ZAPATUA

- Arratsaldeko 4retan Alebin eta infantilen txirrindulari lasterketa.
- Gaueko 10etan **Belle epoque** filmea Zaraia zineman.

## 18

### DOMEKA

- Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera:

**Senderismora (Troke).**

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Trapalata-ra**.

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Eskoriatza-Kanpanzar-Elgeta-Bergara-Oñati-Arantzazu-Aretxabaleta**. (75 Km)

- Futbol partidua: **U.D.A-C.D. Bergara**.

• Arratsaldeko 4,30etan **"La fuerza de la ilusión"** eta 7retan **"Belle epoque"** filmeak Zaraia zineman.

## 24

### ZAPATUA

- Gaueko 10etan **"Ultimos días del Eden"** filmea Zaraia zi-

neman.

## 25

### DOMEKA

• Zaraia Mendizale Taldearen urteera: **Es-kolarteko martxa erregularra**.

• Murrukixo Mendizale Elkartearen urteera: **Arangurenera, gazte-txoak eta Gipuzkoako itzulia nagusiak**.

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Kanpantzar- Berriz-Trapakua-Markina-Etxebarria-San Miguel-Elgoibar-Aretxabaleta**. (85 Km)

• Arratsaldeko 4,30etan **"La Cenicienta"** eta 7retan **"Ultimos días del Eden"** filmeak Zaraia Zineman.

## ARETXAZOKA

### Lana

• Neska bat gertu etxeke lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 ( Maika ).

• Zure etxetik lan eginez dirua irabazi gura baduzu, bidali sobre bat helbide honetara: 161 postakutxa.

### Lana

• Amerikar bat ingelesko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

• Ingenieritzako 2. mailako ikasle batek klase partikularrak emango lituzke. Tfnoa: 79 47 62.

### Lana

• Emakume bat etxeke lanak, portalak garbitzeko eta abar egiteko prest dago. Tfnoa: 71 46 24

### Salerosketak

• Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

**Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**

**SEAT**  
  
**GARAJE OSKAR**  
 Basabe poligonoa  
 A - 2 - 4  
 Tfnoa: 79 98 74

**ZARAIA TABERNA**  
 GOIZEKO 5,30etatik  
 ZURE ZERBITZUAN  
 MANTEKA  
 ANAIK

**BASABE JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 industrialdea  
**ARETXABALETA**  
 Tfnoa: 77 07 94  
 79 91 84

**ITURGINTZA**  
  
 Tfnoak: 79 07 34  
 79 31 87

**ARLUTZ**  
**TABERNA**  
 Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

  
**HAIZEA AKEITEGIA**  
 Mitarte Kalea, Z/G  
 Tfnoa: 79 85 57

**EXPRESS AKEITEGIA**  
 Santa Kurtz, 16  
 Tfnoa: 79 23 43

**Zatoz ezagutzera ZUHAITZ jatetxea!**  
  
 BAZKARI ETA AFARI ONENAK!!!  
 Tfnoa: 71 41 21  
**GATZAGAN**

**MATIKUA TABERNA**  
 Azata auzoan  
 ☎ 79 16 68  
**ARETXABALETA**


**JAUREGI OKINDEGIA (Panaderia)**  
 Otalora, 10  
 ☎ 79 57 47

**ANDONI ALTUBE**  
**ELEKTRA INSTALAKUNTZAK**  
 Durana, 36  
 ☎ 79 01 72  
**ARETXABALETA**

**I O S U URDAITEGIA**  
**MITARTE, 1 eta GORBEA, 8**

**DON BIDEO BIDEO DENDA**  
 Loramendi, 10  
 Tfnoa: 79 81 78

**Optica**  
  
 Loramendi, 10  
 ☎ 79 98 21

**IBARRA ESTANKOA**  
  
**Tabakoa eta ikasmateriala**  
  
 Bizkaia, 3  
 Tfnoa: 79 23 77

**"HERRASTI"**  
**AKEITA ETXEA**  
  
 Aralar Kalea, 7  
 Tfnoa: 79 32 83

**NERIAN**  
 Loradenda  
 Otalora, 14 behea  
 Tfnoa: 79 70 66



Libretan.




Superlibretan.



- (\*) Zure gaur eguneko libreta eroso, sinplea eta argia da. Baina, nolakoak dira zure interesak...? Superlibreta, ordea, eroso, sinplea eta argia da. Eta bere interes-mota bikaina da. %7raino U.T.B. Aurreneko 100.000 ptak. %0,10ean. Hori baino argiagorik! Gastu eta komisiarik gabe. Besterik gabe. Ez galdu diru gehiago zure gaur eguneko libretarekin. Zatoz Superlibretaren bila! Jadanik 100.000 familiatik gora egin dute aldaketa!

Eta lehen 20.000 irekierentzat lausigailu  
Elektriko bat oparizat.  
Informa zaitetz 900 555 900 zenbakian  
astelehenetik ostirala bitartean, 8etatik 17etara



Eguneroko gutxieneko saltoa  
100.000 pta.tik aurrera izanik,  
lehen 100.000 ptak. %10ean.  
U.T.B.ko adibideak:  
250.000 pta>rako %4,23  
500.000 pta>rako %5,34  
1.000.000 de pta>rako %6,45  
5.000.000 de pta>rako %7,01.



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA